EKFB EUSKAL KIROL FEDERAZIOEN BATASUNEKO HAUTESKUNDE ARAUTEGIA

AURKIBIDEA

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

LEHENENGO ATALA: IRIZPIDE NAGUSIAK

1. Artikulua. – Arautegi aplikagarria.
2. Artikulua.– Ospakizun urtea.
3.Artikulua. – Sufragioaren ezaugarriak.
4.Artikulua – Egun baliodunak.

BIGARREN ATALA: HAUTESKUNDE DEIALDIA

5. Artikulua. – Deialdiaren garapena.
6. Artikulua. – Deialdiaren edukia.
7. Artikulua. – Deialdiaren publizitatea.

HIRUGARREN ATALA: HAUTESKUNDE ERROLDA.

8.Artikulua. – Hauteskunde Erroldaren Edukia
9.Artikulua. – Argitalpena eta erreklamazioak

LAUGARREN ATALA: HAUTESKUNDE BATZORDEA.

10. Artikulua. – Eraketa eta bateraezintasunak
11. Artikulua. – Iraupena.
12. Artikulua. – Funtzioak.
13. Artikulua. – Hauteskunde Batzordeko hitzarmenen aurkako errekurtsoak.
14. Artikulua. – Hauteskunde Batzordeko Aktak.
15. Artikulua.– Hauteskunde Batzordeko kideen betebeharrak.
16. Artikulua.– Hauteskunde Batzordearen Ordainsaria.

II. KAPITULUA

BATZAR NAGUSIA

LEHENENGO ATALA: BOTAZIOA

17. Artikulua. – Batzar Nagusiaren Eraketa.
18. Artikulua.– Botazioaren garapena.
19. Artikulua. – Hauteslearen akreditazioa.
20. Artikulua. – Boto ematea.
21. Artikulua. – Hautestontziak, gutun-azalak eta txartelak.
22. Artikulua. – Botazioaren amaiera.
23. Artikulua. – Hautesle egoera galtzea.

III. KAPITULUA

ZUZENDARITZA BATZORDEAREN HAUTAKETA

LEHENENGO ATALA: HAUTATZEKO MODUA

24. Artikulua. – Hautatzeko modua.
25. Artikulua. – Deialdia.
26. Artikulua.– Hautesleak.

BIGARREN ATALA: KANDIDATUREN AURKEZPENA ETA ALDARRIKAPENA.

27. Artikulua.– Kandidaturen aurkezpena.
28. Artikulua. – Kandidaturen onarpena.
29. Artikulua.– Kandidaturen aldarrikapena.

HIRUGARREN ATALA: BOTAZIOA, ZENBAKETA ETA EMAITZEN ALDARRIKAPENA.

30. Artikulua.– Botazioa
31. Artikulua. – Zenbaketa
32. Artikulua. – Emaitzen aldarrikapena
33. Artikulua.– Zenbaketaren akta

IV. KAPITULUA

HAUTESKUNDE ERREKLAMAZIOAK ETA ERREKURTSOAK

LEHENENGO ATALA: ARAU KOMUNAK

34. Artikulua.– Hitzarmenen eta ebazpenen kontra egitea
35. Artikulua. – Legitimazio aktiboa.
36. Artikulua.– Erreklamazioen eta errekurtsoen edukia.
37. Artikulua.– Erreklamazioak eta errekurtsoak aurkezteko epea.
38. Artikulua. – Erreklamazioen eta errekurtsoen ondorioz emandako ebazpenen argitalpena.

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

LEHENENGO ATALA: IRIZPIDE NAGUSIAK

1. Artikulua.– Arautegi aplikagarria.

Kirol Federazioen Batasuneko Zuzendaritza Batzordearen hauteskundeak Euskadiko Kirol Federazioen Batasuneko Estatutuetan hala nola Arautegi honetan xedatuari jarraiki erregulatuko dira. Arautegi honetan ezarriaren xedeetarako, Erregimen Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Komunaren inguruko 30/1992 Legean eta hauteskunde legeria orokorrean xedatu arauak eta irizpideak jarraituko dira.

2. Artikulua. – Ospakizun urtea.

Hauteskundeak lau urtez behin ospatuko dira, Joko Olinpikoen ospakizun urtearekin batera. Euskadiko Kirol Federazioen Batasunak bidea emango dio bere **hauteskunde prozesuari, Kultura Kontseilariaren Ordenan dagozkion hauteskunde prozesuen inguruan euskal federazioentzat ezarritako amaiera data-mugatik hiru hilabete barru, zeinen arabera hauteskunde arautegiak eratzeko eta Euskadiko zein lurralde kirol federaziotako hauteskundeak ospatzeko irizpideak ezarriko diren**.

Aurreko hauteskundeetan hautatu ziren administrazio organoen agintea hauteskundeen deialdiarekin amaituko da; hortik aurrera, ordezkoak izango dira, behin-behineko gestore modura.

3. Artikulua. – Sufragioaren ezaugarriak.

Sufragioa librea, zuzena, berdina eta sekretua izango da.

4. Artikulua.- Egun baliodunak.

Abuztua ez da balioduna kontsideratuko hauteskunde xedeetarako.

Hauteskunde Arautegian aurreikusi epeak egun baliodunei dagozkie, espresuki aurkakoa xedatzen ez denean; igandeak eta jai-egunak kanpo geratzen dira.

BIGARREN ATALA: HAUTESKUNDE DEIALDIA

5. Artikulua.– Deialdiaren garapena.

Batzar Nagusiko hauteskundeen deialdia egingo du Euskadiko Kirol Federazioen Batasuneko Presidenteak.
Hauteskunde deialdia egin ondoren, Zuzendaritza Batzordea jardunekoa izango da Zuzendaritza Batzorde berria hautatu arte.

6. Artikulua.– Deialdiaren edukia.

Hauteskunde deialdian, gutxienez, ondorengo alderdiak kontuan hartuko dira:

a) Behin-behineko hauteskunde errolda.

b) Hauteskunde egutegia zeinetan derrigorrez errespetatuko den federazio errekurtsoaren eskubidea, bere prozedurari eta inola ere sufragioaren eskubidea eragotziko ez duten dagozkion izapideei ekin aurretik.

c) Gutun-azalen eta txartelen eredu ofizialak.

d) Hauteskunde Batzordearen izen zerrendaren eraketa eta bere ezespenerako epeak.

7. Artikulua. – Deialdiaren publizitatea.

1. Deialdiaren aldarrikapena agerian jarriko da Euskadiko Kirol Federazioen Batasuneko instalaziotan.
2. 6. artikuluan azaltzen den edukiaren inguruko deialdia ahalik eta gehien aldarrikatu eta hedatuko da; horretarako erabiliko dira, ahal den neurrian, baliabide elektronikoak, telematikoak eta informatikoak, Euskadiko Kirol Federazioen Batasunak erabilgarri dituenak. Baliabide horiekin eginiko edozein jakinarazpenean azalduko da, dagozkion prozedurak direla medio, jakinarazpenaren data.

3. Edozein kasutan, deialdia Batasuneko iragarki-tauletan argitaratuko da. Argitalpen hori bermatuko da, ziurtagiriarekin batera, aurreko dokumentazioarekin batera erakutsiko dena, Batasuneko Idazkariaren aldetik.
4. Hauteskunde prozesuaren inguruko jakinarazpen, zirkular, ebazpen eta jarduera analogo guztiak hautesle guztientzat eskuragarri jarriko dira 24 orduz EKFB-UFDV-ren web ofizialean.
5. Hauteskunde prozesuaren inguruko zalantzak planteatu ahal dira EKFB-UFDV-k xede horietarako esleitzen duen posta elektronikoan.

HIRUGARREN ATALA: HAUTESKUNDE ERROLDA.

8. Artikulua.– Hauteskunde Erroldaren Edukia.

1. Zuzendaritza Batzordea hautatzeko Hauteskunde Erroldan azalduko dira Euskadiko Kirol Federazioen Batasuna eratzen duten Presidente guztiak, betiere hautesleak ala hautagarriak izateko baldintzak betetzen dituztenean.
2. Erroldaren inskripzioan azalduko dira, gutxienez, izena, abizenak eta NAN zenbakia.

9. Artikulua.– Argitalpena eta erreklamazioak.

1. Behin-behineko hauteskunde errolda eta hauteskundeen deialdia aldi berean argitaratuko dira. Horren aurka jarriko da, bost eguneko epean, erreklamazioa Batasuneko Hauteskunde Batzordearen aurrean. Epe hori kontatuko da jakinarazpenaren ala argitalpenaren hurrengo egunetik aurrera.
2. Behin-behineko hauteskunde errolda behin-betikoa kontsideratuko da, aurkako erreklamaziorik aurkezten ez bada edota, aurkeztu ondoren, hauteskunde Batzordeak ebatzi izango balu.

   Behin-betiko hauteskunde Erroldaren aurka ezin izango da inolako aurka-egiterik adieraziko hauteskunde prozesuaren beste fase batzuetan. Behin-betiko hauteskunde errolda argitaratuko da Batasuneko egoitzan, hamabost egun naturalen epean.
3. Erroldan azaltzen diren datuen tratamenduaren eta argitalpenaren helburu esklusiboa izango da hautesleen sufragio eskubidea bermatzea; ezin izango dira erabili ala errefusatu helburu ezberdin baten arabera.

   Edozein kasutan, izaera pertsonaleko datuak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan aurreikusia aplikatuko da.

LAUGARREN ATALA: HAUTESKUNDE BATZORDEA.

10. Artikulua – Eraketa eta bateraezintasunak.

1. Hauteskunde prozesuaren antolamendua, ikuskapena eta berehalako kontrola Hauteskunde Zuzendaritzari dagozkio. Bere garapen egokia zainduko du, besterik ezean federazioaren izenean bermatuko du dagokion hauteskunde prozesuaren Zuzenbidearekiko egokitzapena.
2. Pertsona batekin eta bere bi ordezkoekin eratuko da.
3. Hauteskunde Batzordeko kide titularraren hala nola ordezkoen esleipena, Batzar Nagusiak egingo du zozketa publikoaren bidez, hauteskunde deialdiaren aurretik. Jazo litezkeen hutsuneak prozedura berdinarekin estaliko dira.

   Federazio Batasuneko Presidente Jaun/andreak ala Zuzendaritza Batzordeak ez dituzte inola ere Hauteskunde Batzordeko pertsonak zuzenean esleituko.
4. Hauteskunde Batzordeko aholkularia izango da, Elkarteko Aholkulari Juridikoa, ahotsa izanagatik botorik izango ez duena.
5. Hauteskunde Batzordearen hitzarmenak interesdunen jakinaren gainean jarriko da eta ohiko tauletan argitaratuko dira.

6. Hauteskunde Batzordea ez dute eratuko inolako kasutan kandidatu jaun/andre bezala aurkeztuko liratekeenak; egoera hau aipaturiko Hauteskunde Batzordeko kideren batengan suertatuko balitz, honek kargua utziko luke eta bere zeregina esleitutako ordezkoak beteko luke.

11. Artikulua. – Iraupena.

Hauteskunde Batzordea eratuko da hauteskunde deialdia egiten den egunean eta Hauteskunde Batzorde berria eratu arte jardunekoa izango da.

12. Artikulua. – Funtzioak.

Hauteskunde Batzordearen funtzioak dira ondorengoak:

a) Hauteskunde errolda onartzea eta Hauteskunde Erroldaren inguruan egiten diren erreklamazioak ebaztea.

b) Hauteskunde egutegia onartzea.

c) Kandidaturak onartzea eta aldarrikatzea.

d) Hauteskunde emaitzak aldarrikatzea.

e) Hauteskunde jarduera ezberdinak direla-eta planteatzen diren erreklamazio eta errekurtso ezberdinak ebaztea.

f) Botazio bakoitzaren garapen egokia zaintzea, boto-emaile bakoitzaren nortasuna eta hautesle egoera egiaztatuz.

g) Emandako botoen onargarritasuna ebaztea.

h) Botoen zenbaketa egitea.

i) Botazioen ala zenbaketaren inguruko beste edonolako gertaera ebaztea.

j) Bere izaeratik eratorritako ala indarrean dagoen arautegian ezarritako gainerako besteak..

13. Artikulua. – Hauteskunde Batzordearen hitzarmenen aurkako errekurtsoak.

Hauteskunde Batzordearen hitzarmen aurka errekurtsoa jarri ahal da Hauteskunde Batzordearen aurrean 2 lanegunen epean. Epe hori kontatuko da jakinarazpena ala, bere kasuan argitalpena egiten den hurrengo egunetik.

Hauteskunde Batzordearen erabakiak pertsona interesdunengana helaraziko dira eta Euskadiko Kirol Federazioen Batasuneko iragarki Taulan hala nola bere Web orrialdean argitaratuko dira.

14. Artikulua. – Hauteskunde Batzordeko Aktak.

Hauteskunde Batzordearen saio bakoitzean behar bezala sinatutako akta altxatu beharko da.

15. Artikulua. – Hauteskunde Batzordeko kideen betebeharrak.

Hauteskunde Batzordea eratzeko hautatu kideek kargua onartu beharko dute, betiere deskribatu bateraezintasunen batean suertatzen ez direnean.

Halaber kargua betetzeko betebeharretik eta diziplinazko erantzukizunetik libre geratuko dira laneko, familiako, osasuneko ala antzeko arrazoi justifikatuak direla medio euren funtzioak behar bezala bete ezinean aurkitzen diren pertsonak.

16. Artikulua – Hauteskunde Batzordearen Ordainsaria.

Hauteskunde Batzordeak erabakiko du, bere kasuan, Hauteskunde Batzordeko kideek euren zerbitzuengatik jaso behar duten ordainsaria.

II. KAPITULUA

BATZAR NAGUSIA

LEHENENGO ATALA:

17. Artikulua.- Batzar Nagusiaren Eraketa.

Batzar Nagusia eratzen dute Euskadiko Kirol Federazioen Batasuna osatzen duten Euskadiko Kirol Federazio guztiek, eta Presidenteak horien ordezkariak izango dira, botoa Zuzendaritza Batzordearen baitan ematen den kasu haietan izan ezik.

18. Artikulua. – Botazioaren garapena.

1. Botazioa etenik gabe garatuko da hauteskunde deialdian finkatutako ordutegian zehar.
2. Ezinbestean baino ez da atzeratuko ala etengo botazioa. Botazioa atzeratzen denean, ez dira kontuan hartuko emandako botoak, ea ez da horien zenbaketa egingo. Horrela, Hauteskunde Batzordeak botazioa berriro ospatzeko berehalako data finkatuko du.

19. Artikulua – Hauteslearen akreditazioa.

Botoa emateko eskubidea Hauteskunde Erroldako zerrendarekin eta hauteslearen nortasuna frogatzearekin egiaztatuko da.

Botoa dagokion Euskadiko Federazioko Zuzendaritza Batzordearen barruan eman den kasuetan, egoera hori behar bezala egiaztatuko da bozketari ekin aurretik.

20. Artikulua. – Boto ematea.

Batzar Nagusiko kide bakoitzak boto bakarra emango du, ez da onartuko botoa ematea bere baitan, Arautegi honetako 17. Artikuluan azaltzen diren kasuetan izan ezik. Halaber ez da posta bidezko botorik onartuko.

Erroldako zerrenda eta boto emailearen nortasuna egiaztatuko dira. Jarraian, Presidenteak botoa gutun-azalean sartuta barneratuko du hautestontzian. Gutun-azalik gabeko ala gutun-azal ofizialik gabeko txartelik ez da onartuko.

Jendearengandik aldendutako toki batean ezarriko dira txartelak, hautesleak bere botoa eman aurretik gutun-azalean sartu dezan.

21. Artikulua – Hautestontziak, gutun-azalak eta txartelak.

1. Hautestontziak gardenak eta itxiak izango dira.
2. Gutun-azalak eta txartelak deialdian ezartzen den eredu ofizialarekin egokituko dira.

22. Artikulua. – Botazioaren amaiera.

1. Botazioaren amaiera iristean, Presidenteak ozenki emango du horren berri bertaratuentzat eta lokalean beste inor sartzea eragotziko du. Jarraian, etorri den hautesleren batek oraindik botatu ez duen galdetuko du eta horiek emandako botoak onartuko dira.
2. Jarraian, Hauteskunde batzordeko kideek eta bere kasuan, kontu-hartzaileek bozkatuko dute.

23. Artikulua. – Hautesle egoera galtzea.

Hauteskunde Batzordeko hautesleren batek hautatua izan zeneko egoera galduko balu, automatikoki baja emango zaio bertan.

III. KAPITULUA

ZUZENDARITZA BATZORDEAREN HAUTAKETA

LEHENENGO ATALA: HAUTATZEKO MODUA

24. Artikulua. – Hautatzeko modua.

Batasuneko Zuzendaritza Batzordea Batzar Nagusi berriaren lehenengo bileran hautatuko dute, hautaketaren unean dauden kideek, sufragio libre, zuzen, berdin eta sekretuaren bidez. Hauteskunde multzoa eratuko du Batzar Nagusiak.

25. Artikulua. – Deialdia.

Batzar Nagusia ezohiko saioan bilduko da, hauteskundeak ospatzeko.

26. Artikulua.– Hautesleak.

Zuzendaritza Batzordeko kandidaturak aurkeztu ahal izango dituzte Batzar Nagusiko kideek soilik, Presidentearen kargua izan ezik, hori EKFB-UFDV-ko Estatutuetako 32. Artikuluaren arabera bete ahal izango du, Euskadiko kirol federatuaren arloko pertsona ospetsuak ala izen onekoak.

BIGARREN ATALA: KANDIDATUREN AURKEZPENA ETA ALDARRIKAPENA.

27. Artikulua.– Kandidaturen aurkezpena.

1. Batzar Nagusiko behin-betiko kideak aldarrikatzean 7 egun naturaleko gutxieneko epea irekiko da, Zuzendaritza Batzordeko kandidaturak aurkezteko.

2. Kandidaturak zerrenda itxiekin eta blokeatuekin aurkeztuko dira, kandidaturaren kideek beteko duten karguen berri emanez; hori guztia kandidaturaren kideen ofizialki onartutako eta sinatutako eta Hauteskunde Batzordera zuzendutako idatziaren bidez, bere helbidea adierazita, eta euren NANen fotokopiak atxikita.

3. Presidente Jaun/andrea izango da, bere kasuan, kandidaturaren buruan azaltzen den pertsona.

4. Aurkeztu ondoren ez da kandidaturarik aldatuko.

28. Artikulua.– Kandidaturen onarpena.

1. Kandidaturak aurkezteko epea amaitzean, Hauteskunde Batzordeak bere onargarritasuna ebatziko du.

2. Kandidaturen onarpenaren ala errefusaren inguruko errekurtsoa jarri ahal izango da Hauteskunde Batzordearen aurrean, 2 lanegunen epean.

3. Kandidaturaren batean konpondu ahal diren akatsak azaltzen badira, antzeman diren akatsak zuzendu beharko dira bi lanegunen epean.

29. Artikulua.– Kandidaturen aldarrikapena.

1. Aurreko artikuluan aurreikusi epea amaitzean, Hauteskunde Batzordeak behin-betiko kandidaturen aldarrikapena egingo du hauteskunde egutegian adierazi epearen arabera.

2. Zuzendaritza Batzorderako kandidatura bakarra dagoenean, ez da beharrezkoa izango botazioa egitea, eta Hauteskunde Batzordeak kandidatura garailea izendatuko du.

HIRUGARREN ATALA: BOTAZIOA, ZENBAKETA ETA EMAITZEN ALDARRIKAPENA.

30. Artikulua – Botazioa

1. Botazioa banaka egingo da eta Hauteskunde Batzordeko kideak bere izenez deituko dio Batzordeko kide bakoitzari hautatu kandidaturaren txartela horretarako erabilgarri jarritako hautestontzian.
2. Boto sekretu hori, Hauteskunde Batzordeak emandako txartel ofizialarekin emango da eta hautestontzian sartuko da.

31. Artikulua.– Zenbaketa

1. Bozketa ekitaldia amaitzean botoen zenbaketari ekingo zaio Hauteskunde Batzordean.
2. Nuluak izango dira ofizialki onartutako ereduarekiko ezberdinak diren gutun-azalekin ala txartelekin emandako botoak, baita gutun-azalik gabe ala kandidatura ezberdineko txartel bat baino gehiago dakartzaten gutun-azaletan emandakoak ere.

32. Artikulua.– Emaitzen aldarrikapena.

1. Garailea suertatuko litzateke bertaratutako kideek emandako boto baliodunen gehiengo sinplea lortuko lituzkeen kandidatura.

2. Euskadiko Kirol Federazioen Batasuneko presidentzia beteko du, hautatua izan den kandidaturaren zerrenda-buruak.

3. Botoen berdinketa jazotzean, bozketa berria ospatuko da Hauteskunde Batzordeak ezartzen duen gehieneko epean. Botazio berrian boto kopuru berdina lortu duten lehenengo kandidaturak soilik hartuko dira kontuan.

4. Berdinketak irauten duenean, hirugarren eta azken botazioari ekingo zaio Hauteskunde Batzordeak ezartzen duen epean eta baldintzetan. Mantentzen denean, zozketari ekingo zaio zazpi eguneko gehieneko epean, berdindutako kandidaturen artean.

33. Artikulua.– Zenbaketaren akta

Behin botazioa burututa, Hauteskunde Batzordeak zenbaketaren akta idatziko du, bozketaren gertakariak jasotzeko eta kandidatura garailearen behin-behineko izendapena egiteko.
Behin-behineko kandidatura irabazlea izendatuta eta, dagokioneen, aurkeztuteko erreklamazioak zein helegiteen ebatzita, behin-betiko izendapena egingo da.

IV. KAPITULUA

HAUTESKUNDE ERREKLAMAZIOAK ETA ERREKURTSOAK

LEHENENGO ATALA: ARAU KOMUNAK

34. Artikulua. – Hitzarmenen eta ebazpenen kontra egitea.

Erreklamazioaren ala errekurtsoaren objektu izan ahal dira, Kapitulu honetan aurreikusi terminotan, ondorengo hitzarmenak eta ebazpenak.

a) Gobernu organoetako eta Euskadiko Kirol Federazioen Batasuneko ordezkaritzaren hitzarmenak, Hauteskunde Erroldako hautesleen eta hautagarrien barne hartzea.

b) Hauteskunde prozesuan eta horren inguruan Hauteskunde Prozesuak hartutako ebazpenak.

c) Gobernu eta ordezkaritza organoen eraketa eragin ahal duten prozeduren inguruan federazio arloan jazotako edozein jarduera, hitzarmen eta ebazpen.

35. Artikulua. – Legitimazio aktiboa.

Pertsona interesdunek soilik jarri ahal izango dituzte erreklamazioak eta errekurtsoak; hala kontsideratuko dira euren banakako interesetan ala kolektibotan hitzarmenaren ala ebazpenaren eragin zuzena ala zeharkakoa jasan duten pertsonak, edota hura berrikustean onuraren bat lortuko luketenak.

36. Artikulua.– Erreklamazioen eta errekurtsoen edukia.

Erreklamazioak eta errekurtsoak behar bezala sinatutako idatziaren bidez aurkeztu beharko dira; bertan azalduko da erreklamazioa egiten duenaren datuak, jakinarazpenaren xedeetarako helbidea, eta posible balitz, fax zenbakia edota komunikazioa errazteko beste edonolako metodo. Idatzian errekurtsoaren objektua izan den hitzarmena ala ebazpena zehaztuko da, aurka-egitearen justifikazioa eta hitzarmen ala ebazpen horren aurka egiteko dagoen asmoa.

37. Artikulua.– Erreklamazioak eta errekurtsoak aurkezteko epea.

1. Erreklamazioak eta errekurtsoak aurkezteko epea, kasu bakoitzerako, Kapitulu honetan ezartzen dena izango da.
2. Edozein kasutan, epea bi lanegunen arabera kontatuko da aurka eginiko hitzarmenaren ala ebazpenaren jakinarazpenetik hurrengo egunetik aurrera. Epe hori betetzean erreklamaziorik ala errekurtsorik jarri gabe, hitzarmena ala ebazpena irmoa izango da.

<u>38. Artikulua.</u>– Erreklamazioen eta errekurtsoen ondorioz emandako ebazpenen argitalpena.

Euskadiko Kirol Federazioen Batasuneko Hauteskunde Batzordeak emandako ebazpenak, jarritako erreklamazioen eta errekurtsoen ondorioz, Batasuneko eta Euskal Federaziotako iragarki-tauletan argitaratuko dira, interesdunengana dagokion jakinarazpena helarazteari utzi gabe.